

### **EZEKIELEN PROPHEZIA**

- I.- Eremuko dunen atzetik dabil zulo urdin guztiak miatu eziniketa euri zitalari esker bizi da; ikusi zituen GURPIL SUTSUAK ARRANOTU zaizkio amuratueta bazter batean aurkitzen da.
- II.- Desafinatzeke nahasirik habil jadanik agure LEIO itxura eutsirik gauaren pareta spraytu duzu
- III.- 17 urteak 17 zuri dira EZEKIEL mingotsaren mingotsaren "merkromina" EZEKIEL ibar labor bat zara hari xingle bat zara betiko.

### **EZEKIELEN ESNATZEA**

- I.- Zuhaitz heba induen hostoetatik, sortzen den murrailen semaforotik debekapenen argi gorritik hasten den kondairaren besorik bulartsuenetik ere urreetatik bastoetatik, ezpatetatik.
- II.- Hodeietan ni hodei sabain, topaketa ezin luzaturik nabil arrats hontako globoarekin hutsaltasun tirano honen betiko besarkadarekin irilatxo bat naiz giltzarenpean hondartzapean;
- III.- Hiri loka hontan ohitutzeraino zuen ohituretan gaur murgiltzen banaiz konexioak hausteagatik izar koloni usaia kapikuatzeagatik

baizik ez da konturatzen naiz: zuen inbentioan jaioberri naiz.

- IV.- Beti gelditzen zaizkit hariak zeintzuetan kokatu itaun berriak ez dezadala hori hura ezabata beti gelditzen dira zubiak erretzeko prest eta zain bizkar atzean, udaberrian udaberrian;
- V.- Suposatzen dut nire haizeak zuenak bezainbat ozono duela suposatzen dut zuenak bezala ene txinaurriak antenez musukatzen direla baina ezin uka: nire kredoa atzetik doa
- VI.- Zorion apurrak azkenerako hari tartetik ebatsiko ditut desodoratu beharko ditut inguru hontako desamozeko leizen ohiartzunak igandetako bihotz hauser hau iraul dezadan.

### **EZEKIELEN ERANTZUNA**

- I.- Galtzeko nuen zorarena maitemindu zait negarrez
- II.- mendekatu ditu nire lo hotzak berotasunezko ehun amets
- III.- eta erdibituta malkoz blai blai baratz lehertuen gurintzan jolastuko naiz
- IV.- egundo, maite, haizeak ez ez dit oinazearen gonarik jasoko eni ... ez, gaur aingerua hormatu da.

### **EZEKIELEN IKASGAIA**

- I.- Saiatu nintzen zerumuga eho bat zipristin gabea eskeintzen saiatu! saiatu naiz itxurosoki barrabasadak estaliz joaten azpitik pasapuru-etu dizkiat bideak zuretzat.
- II.- Badakit zaunkak urruntasunean iraunen dutena beti urmaeletan palastak bailira irmoki; ezin duzu itsasoan sagarrik erein deuserreezaren hilzori pobean bakarrik ezin zamalka haize kopaletik.
- III.- Hik, alferrik; hire ttipitasun hortan baretu ditzakek soslai itsuak hegala baina ura nahi badun draia hobe duzu merengeetan gastatu altxor altxor ene altxor.

### **EZEKIELEN AMETSA (OROITZEA)**

- I.- Uhin artean dabil panpina berunezko jantziak ditu ihintzagatik linburtu gabe, lore beltzak dauzka lekuko loreak lekuko
- II.- Eraitsi ditu egunkariak (txorro morro piko tailo ke) zeuzkaten gezur piadosoak esku tartean erre dira gezurrak erreak.

### **EZEKIEL: IA MAITASUN KANTU BAT**

- I.- Geldo geldiro aparren hotsa itzaltzen den gisan berehalaxe oinez eta eskuz amarratuta hamaika letani makina bat irudi sentikor gor-

puztu behar, deshostatu beharko dut banan banan.

- II.- Ekhi goriak gorputzean eraiki dit erresuma koldarregi naiz aterberatzeko budinezko muna eta ezin dira zure arrisku oro igarri baina, maitea, itsasoa bezala zaude gogotan.

...galtzailea dela adierazi beharra, justiziarik gabe...indarrik ez duela bere justizia propioa ere aurkitzeko...eta janzkera arrazionalerik horrituz, griñaz eta idealez gabetu dutela...eta halaber berezko bortxaz, noizbait azaltzen baizaio, solte, bere esaldiak, garraixiak, isiltasunak josten dutelarik...

...galtzailea dela adierazi beharra... esaldirik, lanik, asmorik, kantarik bukatzen ez duela...bere begiradak, iraunkortasunez kutsatu eta hartatik erazuzirik, gauza xehe eta naturalengana itzultzen dituela, beti lagundu baidute gizona bere aberegisako ibiltze makalean, eta gaur ezkututik galtzailearen argira sortzen dira eta BERE AXOLAGABETASUNAREN HUTSUNEAK BETETZEA LORTZEN DUTE, BERE BARRENETAN FESTA EGINIK, ingurutzen dituenak inguratua. Mabelentzat, bere bizitzaren aldeko borrokan.